



DEIALDIA, LANEKO HARREMANEN ARDURADUNAREN 1 LANPOSTU OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA ARITZEKO. AZTERKETAREN EGUNA ALDATZEA

Giza Baliabideetako zuzendariak honako ebazpen hau eman zuen 2025eko irailaren 4an:

Giza Baliabideetako zuzendariak 2025eko apirilaren 28ko ebazpenaren bidez onetsi zuen onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, lan-harremanetako arduradunaren 1 plaza oposizio bidez betetzeko deialdian, eta zehaztu zuen deialdiko probako I. zatia egiteko data.

Antolaketa-arrazoiak direla eta, data hori aldatu behar da, eta horrenbestez, EBATZI DUT:

1. Ezartzea deialdiko probaren I. zatia (test erako galdetegia) urriaren 18an egingen dela, 08:30etan, Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) 125 ikasgelan.
2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) argitaratzeko agintzea.

Ebazpen honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da:

- a) Berraztertzeiko errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2025eko irailaren 4an.- Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.